

Ke arteko engainuak

Xabier Etxaniz Rojo

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1998



Zumaiaiko Udala

*enskar
txanpan*



Ke arteko engainuak

Xabier Etxaniz Rojo

Julene Azpeitia 11. ipuin lehiaketa

1998

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Xabier Etxaniz Rojo (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

"Azken zigarroa itzali dut eta nekaturik ohera joan naiz. Arropa erantzi, izara artean sartu eta lasai sentitu naiz. Lasai eta pozik. Ohean ene lagun ona den Koldorekin oroitu naiz eta berak esandakoa etorri zait gogora. Egun hartan esan zuen —hamasei hitz soilik erabiltzen zituen antzerki ulergaitz hura ikusi genuen egunaz ari naiz— benetan atsegin zaiguna ez dela antzerkia edota istorio bera, baizik eta ikusi edo irakurri dugun hori, dena delakoa izanik ere, ulertzeko gai izan garela jakitea. Jakite hura da zinez pozten gaituena nahiz eta gehienetan kontrakoa iruditu. Eta arrazoia duelakoan nago ezen bizitza honetan ezer gutxi baita ematen duena".

Burugabeko Istorioen Idazleak azken paragrafoa tekleatu du. Hogeita laugarren zigarroa itzali bitartean erlojuari gainbegiratua bat eman dio. Seiak eta lau minutu. Begi negartsuak igurtzi ditu antiojuak kendu gabe. Zortzi ordu ordenagailuaren aurrean eman ondoren, lehenengo aldiz oroitu da, zertxobait idatzi eta ordu erdi beranduago oheratuko zela agindu ziola emazteari.

Burugabeko Istorioen Idazleak inspirazioak ez duela ordutegirik pentsatu du. Hogeita bosgarren zigarroa ezpain artean jarri eta, ohi bezala, amaiera hitza jarri aurretik, ipuin osoa irakurtzeari ekin dio idazlan guztietako akats galduaren bila. Sagua gora eta beheara darabil trebezia handiz. Goiko gezia sakatu, behekoa, hitz hori kendu, aukeratu, "supr", blokea kendu?, bai, hitz berria idatzi, hor koma falta da, han puntua, ese hori soberan dago, zigarroari zurrupada bat, adjektibo hori ez zait gustatzen, aukeratu, "supr", blokea kendu?, bai, adjektibo berria tekleatu... kasik ohartu gabe ordubete igaro da eta "amaiera" hitza jartzeko prest dagoenerako, leihotik, emaro-emaro, egunsentiaren lehenengo izpiak sartzen hasiak dira.

Ordenagailua itzali gabe, Burugabeko Istorioen Idazlea ohera doa. Logelan sartu, zaratarik egin gabe arropa erantzi, oheratu eta jarrera egokia hartu bezain pronto seko geratu da lo. Hain da sakona bere loaldia non, ordu laurden eskas beranduago, Rosaren iratzargailua sumatu ere ez baitu egin.

Rosa liburutegi txiki bateko liburuzaina da. Goizez bederatzieta sartzen da lanera eta arratsalde hiru eta erdietan. Kanpoan bazkaltzen du egunero. Merezi ote etxera joatea bazkaltzera?. Denbora gehiago emango luke kotxean etxean baino. Etxean zerbait egiteko edo norbait bere zain balego sikiera!!. Beno, etxean senarra egon ohi da baina senarra ez da ezer, ez da inor. Behinola —noiz edo noiz ekartzen du gogora— orain hamaika urte edo, mundua hankaz gora jarri nahi izan zuen. Mundu berria eraiki, askatasunari

leihoak zabaldu, make love, no war... eta borroka horretan murgildurik —zein oker zeuden— Rosak amodioa egin zuen. Idazle batekin. "Intelektuala" esaten zuen berak. Zoriontsuak izan ziren —ezin uka— baina orok du bukaera eta bere zoriontasunari ere bukaera iritsi zitzaion. Ametsak urtu ziren, mundu berria eraikitzeaz ahaztu egin zen eta askatasuna, ez jakin nola, norberaren askatasuna bihurtu zen. Boterearen kontra borrokatetik kultur zinegotziekin borrokatzea pasa zen, liburu berriak erosteko diru gehiago eman ziezaioten. Egun, aldiz, ezta hori ere. Nekatuta dago oso. Nekatuta bere lanaz eta kultur zinegotziaz, bizitzaz eta senarraz, zeinak egun erdia ordenagailuaren aurrean ematen duen eta beste erdia bere pentsamenduetan murgildurik... Baina gaur pozik esnatu da. Izan ere, gaur ostirala da.

Burugabeko Istorioen Idazlea ordu biak aldera esnatu da. Dutxa hotza hartu ondoren hozkailuan begiratu du jateko moduko zerbaiten bila. Igandean egindako paellaren apurkak hartu ditu, ez paella jateko gogo gehiegirik duelako baizik eta paella horrekin behin betiko bukatu nahi duelako. Mikrouhingailuan berotu du janaria eta mahaian eseri da, ohi legez, bakarrik. Bakar-bakarrik bere pentsamenduei aurre egiteko. Eta pentsamendu horiek esaten diote bere ezkonbizitza aspalditik doala maldan behera, etengabe, eta zerbait egin beharko lukeela hori gerta ez dadin. Zerbait egin edota egoera onartu eta pentsamendu horiek ahalik eta azkarren uxatu. Edota bere buruari iruzur egin eta krisia hitzaren pean ezkutatu. Zerbait aurkitu behar du baina bila ari bada ere arroz aleen artean ez du ezer aurkitu. Bazkaria bukatu du eta harrikoa egin gabe (gaur ostirala da eta Rosak ingeles ikastaroa dauka) ordenagailura joan da. Ipuina berriro irakurri du pantailan eta atzo baino gehiago atsegin zaio, gehien bat irakurketa bere pentsamenduak albo batera uzteko baliagarria suertatu zaiolako. Inprimagailua piztu, orri txuriak ondo prestatuta utzi eta saguaren botoia sakatu du. Inprimagailua martxan jarri da eta honekin batera, supituki, Burugabeko Istorioen Idazleari lehen alboratutako ideiak etorri zaizkio berriro burura. Rosarekin hitz egin beharko lukeela esan dio pentsamendu batek. Hurrengoak, berriz, egia osoa esateko ez dela inoiz gai izango. Galdera bat datorkio segidan, zeinak jakin nahi duen ea hain larria den Rosa bigarrena izatea. Zergatik ez dio esan behar asko maite duela baina maiteago duela bere literatura?. Galdera eta ideia franko, bata bestearen atzetik eta desordenaturik, eta Burugabeko Istorioen Idazlea horiek buruan antolatu nahi eta ezinean dabilenez inprimagailutik ateratako orriak antolatzen hasi da. Bina kopia atera ditu eta bi multzotan pilatzeari ekin dio. Bukatu duenean kartazal handi bat hartu eta bertan ipuinaren kopia bat jarri du. Kartazalean izen bat idatzi du eta bere letra aldrebestua ikusi bezain pronto tristezia nagusitu zaio bularrean. Izan ere, eskuz idazten zueneko garaietan ez zituen egun dituen buruhaustak.

Burugabeko Istorioen Idazlea kartazala postaz bidaltzera atera da etxetik, ordenagailuaren aurrean hiru ordu eman ostean. Une berean Rosak liburutegiko atea itxi du. Goizean ez bezala orain ezpainak margotu berriak daramatza eta ile mototsa solte. Urrats txiki baina azkarrak emanez, bost minutu baino ez ditu behar izan atariraino iristeko. Igogailuaren zain egon bitartean zalantza bat azaldu zaio ez baitu gogoratzen noiz esan zion senarrari astean hirutan ingelesa ikastera joango zelakoa. Igogailua laugarren solairura iritsi denean zalantzak berean darrai. Urte eta erdi, bi urte... ez dago ziur. Laugarren solairua. "A" atea. Rosak txirrina jo du eta zazpi segundo beranduago atea zabaldu da. Ezer esan gabe, atean bertan eta begiak itxirik, Rosaren ezpainak gizon gazteago baten ezpainak laztantzen hasi dira. Gizon gazteak estu

besarkatu du eta Rosa, miresten dituen beso sendo horien artean dagoela eta ingeleseko hitz bat bera ere ahoskatu gabe, ahaztu egin da bere zalantzaz eta bere senarraz.

Koadernatutako Kulturaren Antolatzailea ohean datza, bihotzaren erritmoa noiz lasaituko zain. Soinean hezetasun geruza fin bat baino ez eta ezpainetan irribarre zabal bat. Ohetik altxatu gabe, eskua bere poltsaraino luzatu du zigarro baten bila. Zigarroa piztu eta hain zabalik sumatzen ditu birrikak non lehenengo zurrupada behatzetaraino iritsi zaiola irudipena daukan. Airean keak egiten dituen joan-etorriei egin die so, pozik. Segidan erlojuari begiratu dio eta, ohartu gabe, Koadernatutako Kulturaren Antolatzaileak kalkuluak atera ditu. Ordu bete eta hiru ordu laurden zorientasunean egon dela otu zaio. Bere senarrak ohean horren hamarren bat iraungo balu zertxobait gozaten hasiko litzateke, eta ziurrenik bien artekoa ezberdina litzateke. Eta kearen mugimenduei adi jarraitzen duen bitartean pentsatu du bere senarra honen aldean munduko maitale guztien artean bera dela, zalantza izpirik gabe, kaskarrena. Haatik, pentsatutakoa berehala zuzendu du eta berreraiki du esaldia. Ez da munduko maitale guztien artean kaskarrena, unibertsoko maitale guztien artean kaskarrena baizik ezen ziur baitago maitale honek galaxia berriak ezagutzera eraman duela.

Koadernatutako Kulturaren Antolatzailea Alberto ari da. Alberto bere ondoan dagoen pintore gaztea da. Zutitu eta lehen presaka eta korrika erantzitako arropa biltzen hasi da. Dena bildu duenean, ezer esan gabe, dutxara zuzendu da eta bildutakoa arropa zikinerako duen ontzian laga du. Iturria ireki du eta ura berotzen den bitartean ohera itzuli da. Dutzatu eta hitzordu bat jarria duenez, berehala alde egin behar duela esan dio bere maitaleari. Honek ez dio txintik ere esan, ezpainetan marraztutako irribarreak ez baitio hitz egiten uzten. Alberto dutxara bueltatu da eta ura tenperatura egokian dagoela konprobatu du. Dutzaren azpian sartu eta geldi-geldi geratu da, urak bere gorputz sendo eta beltzaranaren milimetro guztiak busti ditzan. Ur beroak giharrak ez ezik pentsamenduak ere erlaxatu dizkio eta, horregatik, ohean dagoen emakumearengandik ezpainetako irribarre alaia baino ez datorkio burura. Ez berarekiko sentimenduak. Ez isiluneak. Ez zalantzak. Irribarrea soilik. Ehunka bider ikusitako keinu adierazgarri hura. Eta jarraian bururatu zaio, mila urtez segidan pintatzen emanagatik, sekula ez duela zorientasuna koadro batean irudikatuko emakume horrek bere ezpainetan egiten duen bezain ongi.

Koadernatutako Kulturaren Antolatzailea ohetik altxatu da, mantso-mantso, eta arropa lurretik jasotzeari ekin dio. Presarik gabe, kuleroak eta prakak jantzi ditu. Titi-zorroa hormaren kontra dagoen bukatu gabeko koadro baten alboan aurkitu du. Itsusi samarra dela pentsatu du bere baitan. Itsusia bezain ulergaitza. Sekula ez die margo horiei zentzurik aurkitu, nahiz eta gehienetan Albertori kontrakoa esaten dion. Albertori ez litzaioke batere gustatuko eta ziurrenik min izugarria egingo lioke, bigarren mailakoa ez, laugarren mailako margolaritzat jotzen duela jakiteak. Koadernatutako Kulturaren Antolatzaileak ez dio minik eman nahi, Alberto berarekin biziki maiteminduta dagoela badakielako. Nola esango zion, bizkarrezurra mila zati ñimiñotan txikitu gabe, ez diola egia esaten irudi haiei buruz hitz egiten duten gehienetan? Nola esango, azala goitik behera urratu gabe, izara arteko saioetan datzala bere artea eta ez mihise barnean eta horrexegatik soilik joaten dela beregana?. Ez, Koadernatutako Kulturaren Antolatzailea ez dago prest horrelakorik bere maitaleari aitortzeko. Eta atorra jantzi bitartean Alberto

ikusi du, dutxatik atera berria. Bere azal beltzaranaren gainean ur tantek diz-diz egiten dutelako burutazioa izan du eta bat-batean, higidura erreflexu azkar bat bailitzan, irribarre zabal bat agertu da bere ezpainetan.

Albertok musu batez agurtu du. Arropa garbia armairu ezberdinetatik atera du. Ohe pareko komodatik galtzontzilo eta galtzerdiak, esekigailu batetik praka koadrodunak, kamiseta koloreanitza apalategitik eta zapatilak pasilloko armairutik. Dena ohe gainean bildu duenean janzteari ekin dio eta horretan egon bitartean burura etorri zaizkio etxe hartako beste gela guztien irudiak. Eta etxe hartan den-dena hankaz gora dagoelako pentsamendua ezin izan du uxatu. Halaber, ezin izan du jarraian etorri zaion burutapena aldendu, alegia, arropa izan ezik bere bizitzan oro dagoela hankaz gora eta egunen batean konpontzen hasi beharko lukeela dioena. Baina horretarako etxetik alde egin berri duen emakumearekin hasi beharko lukeela hausnartu du. Nola ordea?, arrapostu egin dio bere buruari, nola egin berarekin maiteminduta dagoen emakumeari kalterik egin gabe?, zein keinu jarriko, beraien artekoa sexu harreman horietatik baino haratago ez dela sekula joango azaltzeko orduan?. Alberto etxetik ateratzeko prest dago. Giltzak bilatzen hasi eta berehala aurkitu ditu. Etxeko atea ireki du eta igogailuaren botoia sakatu. Zain dagoen bitartean atera hurbildu, giltza sarrailan sartu eta bi buelta eman dizkio. Hitzordua jarria dauka eta berandutu egingo da. Eta kaletik doanean gogora ekarri du bere maitalearen irribarra eta pentsatu du inoiz ez litzatekeela zorientasuna ezpain horietan berriro agertuko bere ohetik maitale bat baino gehiago pasatzen dela jakinez gero. Eta ez, ez dago horretarako prest.

Oroitzapen Bitxien Margolaria, eskuak patriketan, hiria bitan banatzen duen muga ikusezinerara gerturatzen hasia da pauso handi eta bizkorrez. Farolen argipean, bere itzalari begira doa. Handitu, lipar txiki batez desagertu eta berriro beste itzal bat sortu, etengabe. Garai batean, kale hartan aparkaturiko kotxeek eta hiru solairutako etxeek bereganatzen zuten bere arreta baina denboraren poderioz auto garesti horiek guztiek galdu zuten interes oro eta orain, kalea erdi hutsik dagoela eta txalet horien ezaugarri guztiak ezagunak dituelarik, askoz dibertigarriagoa deritzo bere itzalari jaramon egiteari. Handitu, lipar txiki batez desagertu eta berriro beste itzal bat sortu, etengabe. Eta horrela, ia ohartu gabe, Oroitzapen Bitxien Margolaria iritsi da Mariaren lorategiraino. Eskuak patrikatik atera eta botoia sakatu du. Sei segundo beranduago ahots batek galde egin dio ea nor den. Erantzun ostean zain geratu da. Zigarro bat atera eta piztu egin du. Zurrupada bat, kea irentsi, kea bota, haizeak ke lainoa urrundu eta beste zurrupada bat. Eta zain dagoen bitartean bururatu zaio dirua eta keak antza handia dutela berehala, bere kasuan bederen, desagertzen baitira.

Maria jaitsi da eta musu luze bat eman dio ezpainetan. Mariaren nortasun agiriak ogibidez itzultzailea dela dio, baina hori, azken batean gutxienekoa da. Nortasun agiri horrek esan lezake goi mailako abokatua, enpresaria, karrera-auto baten gidari trebea, oftalmologoa, antzerkigilea, alderdi politiko bateko goi kargua edota irrati kate on bateko esatari famatua. Izan ere, diruak zerbaitetarako baliagarria bada aukerak erosteko izaten da eta Mariaren gurasoek dirutza handia darabilte esku artean. Hala ere, nortasun agiri horrek, esaten duena esaten duela, beti esango du gezurra, Maria zerbait izatekotan, bizizalea baita. Eta horrexegatik atera da orain kalera eta horrexegatik, hain zuzen, eman dio musu luze bat ezpainetan.

Oroitzapen Bitxien Margolaria eta Maria biek gustuko duten zonalde batera joan dira. Lehenengoari bera bezalako jendearekin elkartzen delako atsegin zaio. Mariari, berriz, bestela sekula ezagutuko ez lukeen jendea topatzeko parada ederra duelako. Izenik gabeko lokal ezagun eta ilun batera iritsi direnean sartu eta barrarantz abiatu dira bertan esertzera. Oroitzapen Bitxien Margolariak bi garagardo eta Chester pakete bat eskatu du. Mariak bere garagardoa hartu baino lehen billete bat utzi du barra gainean tabernariak kobra dezan. Zigarro bana piztu dute eta berehala hurbildu zaie lagun bat solasteko gogoz. Oroitzapen Bitxien Margolariaren aspaldiko laguna zuriz jantzita doa eta bizarra egin berria dauka. Bera ere margolaria da eta, bi konderi elkar topo egitean gertatu legez, margolarien gauzez hitz egin dute. Eta hitz egin bitartean, beste erronda bat eskatu dute. Jarraian bien ezaguna den filosofo bat hurbildu zaie eta berarekin mintzatu dira jainkoez eta jainkosez, eta gero beste erronda bat edan dute, maitasuna eta gorrotoaren garrantzia izugarriaz hitz egin nahi zuen poeta tximaluze batek ordainduta. Segidan zigarro bana piztu dute maitasun eta gorrotoaz hitz egiteari utzi gabe. Bosgarren erronda eskatu dutenerako Oroitzapen Bitxien Margolariaren lagun margolariari mingaina irristatzen hasi zaio; bihotza zabaltzeko sekulako beharra sentitu du ezin baitezake gehiago jasan eta berarekin dabilen mutilari antigorputzak aurkitu dizkiotela eta lur jota dagoela kontatu die. Eta ziur dagoela bera ez dela izan, eta zinez mina egin diona engainatua sentitu izana izan dela. Margolariak, negar zotinka, dzangada batez hustu du basoa, zutitu eta joan egin da. Oroitzapen Bitxien Margolaria eta Maria isil-isilik geratu dira, garagardoa eta euren pentsamenduen laguntza bakarrarekin. Bere adiskidearen lagunaren zorigaitzaren inguruan bata. Zuriz jantzitako gizon hark esandakoarekin bestea. Zer pentsatuko luke? Nola sentituko litzateke berarentzat joko bat besterik ez dela baleki? Zer sentituko luke esaten dionaren kontrakoa esango balio, ez duela inoiz maite izan eta denbora-pasatzat jotzen duela, ondo pasarazten dion bitxikeria garesti eta xelege bat baizik ez dela?. Eta izenik gabeko lokal ezagun eta ilun hura ixten hasi direnean, gogo handirik gabe, azken garagardoa bukatu dute.

Kalera atera eta taxi bat eskatu dute. Oroitzapen Bitxien Margolariak helbidea esan dio gidariari. Irratian kirol saio baten errepikapena entzuten da eta gidariak soilik egiten dio jaramonik. Taxia bere helmugara iritsi denean Mariak dirua atera eta ordaindu egin du. Autoa oraindik ez da mugitu eta jada hasiak dira musu eta losintxak. Etxera igo, atea zabaldu, jantziak elkarri erantzi eta euren azalei hitz egin dezaten aukera eman diete. Eta horrela jarraitu dute harik eta euren mingain, bular, ezpain, lepo eta eskuak guztiz ase diren arte. Ase direnean arnasa hartzeko ordua iritsi zaie eta elkarren ondoan etzan dira. Bost minutu beranduago Maria ohetik altxatu eta janzen hasi da. Oroitzapen Bitxien Margolaria ohean geratu da Mariari begira. Alde egiteko prest dagoela ikusi duenean zigarro bat eskaini eta dirurik eskatu dio, ohi legez, eskatu gabe. Bere koadroak ondo saltzen ari direla baina oraindik ez duela dirurik ikusi, koadroak aurki beste leku batean erakutsiko dituela, azken egun hauek etorri handikoak izan direla... Mariak zigarroa hartu, billete batzuk mesanotxean utzi eta joan egin da. Oroitzapen Bitxien Margolaria erretzen hasi da eta keari erreparatzen dion bitartean bururatu zaio Maria ere zigarro bat bezalakoa dela. Ezen maiz kontrakoa esaten dion arren, ez baitu Mariarekiko maitasun zipitzik ere sentitzen eta gorputzari gertatzen zaiona berari ere gertatzen baitzaio. Gorputzak nikotina dosia eskatzen duenean berak zigarro bat pizten

du. Patrika hutsik duenean, berriz, Oroitzapen Bitxien Margolariak Mariarengana jotzen du.

Maria kalean dago taxi baten zain. Zigarroari azken zurrupada eman dio eta kea airean desagertu den unean taxia iritsi da. Atzealdean eseri da eta helbidea esan dio. Gidaria lehengo bera da, baina lehen ez bezala irratia isilik dago eta gidaria aspertuta dagoenez eta hitz egiteko gogoz dabilenez kontatu dio hala zer dela eta itzali duen irratia nola irratia ren inguruan dituen ohitura, gustu, zein apeta guztiak. Baina Mariak ez dio jaramonik egin nahi, ezen taxiaren barnean ez ezik beste bidaia bat ere egiten ari baita, bere pentsamenduetara doana. Eta gogoratu da zuriz jantzitako margolariarekin baita filosofoarekin ere. Eta oroitu da lehenengoaren bikotearen gaixotasunaz eta oroitzapen horrek pentsarazi dio maitasun horrek sortu duen sufrimenduz bai eta sortuko duenaz ere. Jarraian gaueko beste pertsonaia etorri zaio gogora, poeta alegia. Honekin maitasuna eta gorrotoaz mintzatu dira eta bere baitan hausnartu du ez dabilela batere oker poeta tximaluzea bi kontzeptu haien garrantziaz, euren esanahia kontrakoa den arren, ez baitago bietako bat ulertzerik bestea ezagutu gabe. Eta ordaindu ostean taxitik jaitsi denerako ondorioztatu du maitatu egiten duen orok zerbaiti edo norbaiti gorroto diola, eta gorroto duen orok zerbait edo norbait maite duela, bera izan ezik, berak bietako bat baino ez baitu ezagutzen eta ezagutzen duen hori ez baita maitasuna. Eta, ziurrenik, horrexegatik bizi dela bizi den bezala eta jokatzeko duela jokatzeko duen bezala.

Hizkuntz Arrotzen Menperatzailea ohetik altxatu berria da eta sukaldean dago gosaltzeko prest. Mahai gainean bi tostada, gurina eta marrubizko marmelada, egunkaria, hautsontzia eta bi zigarro. Mikrouhingailuan katilukada bat kafe. Irratian musika. Hizkuntz Arrotzen Menperatzailearen buruan ez dago ezer bere aitaren irudia gogora ekarriko dionik. Kafea mikrouhingailutik atera du, bero-beroa. Bi tostadak prestatu ditu, gurin eta marmelada askorekin. Koilarakada bat azukre, beste koilarakada bat eta gero beste bat. Egunkaria zabaldu du eta tostadak jateari eman dio. Bukatu duenean zigarro bat piztu du eta egun berri horretan gustura dagoelako pentsamendua izan duen une berean telefonoa jotzen hasi da. Telefonoaren beste aldean bere aita dago eta honek kontatu dio ez dela hurrengo bi egunetan etxera etorriko, negozioa luzatzen ari zaiela, nahi eta nahi ez geratu behar duela oso garrantzitsua baita eskuartean darabilena, eta asko maite dituela. Hizkuntz Arrotzen Menperatzaileak agurtu gabe eskegi du telefonoa eta otu zaio ez litzaiokeela axolako bi egun izan beharrean bi edota hogeitaz izango balira. Kafea bukatu du egunkariari begira, baina irakurri duen guztia bere pentsamendu oihanaren barnean galdu egin da.

Hizkuntz Arrotzen Menperatzailea mahaitik altxatu da bere amaren bila joateko. Cristina egongelan dago eserita. Eskuetan duen argazki-albumak gogorarazi dio zein gazte zen eta zein ederki ematen zion ezkontza-soinekoak. Gero bere buruari aitortu egin dio soineko hark edozein neskaxa politari ederki emango liokeela eta bera —horrelako egiak onartzeko edonor da prest— neska polita zela oso. Egund ere, ederra bada, baina —hain erraz onartzeko prest egon ez arren—, egund ez da horren gazte eta Cristinak bizitza beste era batera ikusten du. Eta bizitza beste era batera ikusten duenez, ez zaio axola musika kontserbatorioko irakaslerik zorrotzena bihurtu izana. Eta horregatik bere ikasleei ez die akats bat bera ere barkatzen, han esaten baititu beste lekuetan esaten ez dituen egiak. Eta horregatik uste du, bere alaba egongelan sartzen

ikusi duenean etorri zaio burura, egon badaudela gauzak sekula ahazten ez direnak, nahiz eta orain denbora asko kontrakoa esaten zuen, ziurtasun osoz esan ere.

Hizkuntz Arrotzen Menperatzaileak Cristinari aitak telefonoz esandakoa kontatu dio. Cristinak bere alabari egin dio so baina ez du txintik ere esan. Begiak argazki-albumera zuzendu ditu atzera eta esan dio alabari bere aita zorte handiko gizona dela, primeran ateratzen baita argazki guztietan, eta egun orain hogeitaz urte bezain lirain eta dotore dagoela. Hizkuntz Arrotzen Menperatzaileak baiezko ahul baten antzeko keinua egin du buruaz baina ez du ezer esan. Cristinak, alabaren erantzun ezari erreparatu gabe, oker dagoela esan du, senarra ederrago dagoela orain gaztea zeneko garaietan baino, urteek ondu dutela ardo onak ontzen dituzten legez. Hizkuntz Arrotzen Menperatzailea berriro ere isilean geratu da, ohi bezala. Zer egin bestela?. Ba al dago, akaso, besterik egiterik pena nagusitzen denean?. Eta isiltasunean pentsatu du gustura asko esango liokeela bere amari dakien guztia, aitak etxetik kanpo lo egin bai, beste emakume batek lagunduta baina. Eta lasaitu ederra hartuko lukeela baldin eta aitaren negozioak maiz izara artean sinatzen direla kontatuko balio, baldin eta ordaintzeko dirua ez ezik haragizko txanponak ere erabil daitezkeela esango balio. Baina Hizkuntz Arrotzen Menperatzaileak isilean gorde nahiago du egia aitortu baino, ezen egia ezagutuko bada bihotz zaildu bat izaten baita beharrezko eta Cristinarena ez da berea bezalakoa, hauskorra baizik, kristalezko arrosa bat bezain hauskorra. Hizkuntz Arrotzen Menperatzaileak egongelatik atera da Cristina bakarrik utzi. Bere logelara joan da eta walkmana hartu du. Gero sukaldara jaitsi da, hozkailutik garagardo bat hartu eta lorategiko etzaulkian etzan da. Eguzki betaurreko borobilak jantzi ditu eguzkiak min egin ez diezaion. Garagardoari zurrupada bat eman dio eta zigarro bat piztu du. Walkmanen bolumena igo du rock musikak begietara datozkion irudiak ito ditzan. Alperrik baina. Ezen ezin uxa baitezake bere amaren irudia, begi aurrean bereak bezalako eguzki betaurreko borobilak daramatzen irudia. Halaber, ezin alboraz dezake ez bere ama guztiz itsuturik dagoelako ideia, ez eta argiak, oso indartsua izanez gero, izugarritzko mina egin dezakeela dioen pentsamendua ere. Eta garagardoari beste tragoxka bat ematen dion bitartean galdera bat etorri zaio burura. Nola ikustarazten zaio itsu bati argiak minik egin gabe?. Eta Hizkuntz Arrotzen Menperatzaileak, nahigabez beterik, ezin du erantzunik aurkitu.

Cristinak gomuten itsasoan darrai, noraezean. Argazki bat, eztei-bidaia Vienan. Hurrengo argazkia, eztei-bidaia Salzburgon. Beste argazki bat, senarra golfean jokatzeko. Beste bat, haurdun zegoeneko garaietatik duen bakarrenetarikoa. Alaba jaioberria, bosgarrena. Beste bat, alaba lorategian pilota handi batekin jolasean. Hurrengo, alaba eta senarra batera lehenengo jaunartze-egunean. Eta jakin-minak bultzaturik argazki horretan bota du aingura. Eta hasi da aurrera eta atzera, albumaren orrialdeak presaka pasatuz, eta berriro atzera, berriro aurrera, bila eta bila, eta beste albumak gainbegiratu ditu eta lehenengo argazki-albumaren orrialdeak erreparatu ditu atzera ere. Alferrik. Argazki hura da azkena. Egun hartaz geroztik ez dute alaba eta senarra argazki bat bera ere elkarrekin atera, eta bere buruari esan dio urteak direla bien artekoa okertzen hasi zenetik, geroz eta urrunago daudela bata bestearengandik, bidegurutze batean batek iparra eta besteak hegoa aukeratu izan balute bezala. Eta izugarritzko pena hartu du hori pentsatutakoan berak biak maite baititu. Cristina zutitu da eta musika ekipora hurbildu ondoren disko bat jarri eta play sakatu du. Zigarro bat piztu du. Eta Mozarten 40.

Sinfoniaren lehenengo notak kearekin airean nahasten diren bitartean, egongelako leihotik begiratu du eta alaba ikusi du etzaulkian. Eta galde egin dio bere buruari ea zergatik aukeratu ote zuen isiltasuna mintzatzeko garaia izan zenean eta zergatik jarraitzen duen hitzik esan gabe. Azalpen askotxo eman beharko lukeelako izan liteke erantzunetarikoa bat. Haatik, gaitza baino erremedioa okerragoa delako izan da aukeratu duena. Ezen sua gasolinaz itzaltzea bezalako izango bailitzateke. Gorrotoa areagotuko litzateke, hori baizik ez luke lortuko egia aitortuz gero. Nola sentituko litzateke alaba, bere aita beste emakume askorekin oheratzen dela baleki? Nola ekidin mesprezua berak senarraren abentura guztien berri baduela aitortu eta gero?. Ezinezkoa izan da burura etorri zaion hitza. Ezinezkoa da. Nola esaten zaio alaba bati bere aita ez dela bere benetako aita, lehenengo ez-leiala bere ama izan zela eta berau dela zorretan dagoena?. Eta haurdun geratu zen gau zoro hura eta bere alabaren aitaren irudia oroitzapenen mundutik azalera ateratzen dituen bitartean, otu egin zaio paradoxikoa dela oso musika irakasle baten bizitzan isiltasuna nagusi bihurtu izana.

Konpositore Zaharren Miresleak kotxearen motorra piztu du eta garajetik atera da. Eskuinera jo du, gero ezkerrera. Hirian sartu da, azeleragailua zapaldu du leku batera iristeko irrikan baitago, baina berehala galgatu behar izan du kotxea semaforo baten argi gorriaren aurrean. Konpositore Zaharren Miresleak gorroto die semaforo guztiei. Azaleko azalpen batek dioenez semaforo guztiak gorri jartzen dira bere kotxe gorria ikusi bezain pronto. Sinpatiaz dio berak. Sakoneko azalpen batek bestela esango luke, zeren, bere bizitzan semaforo gehiegik geldiarazi dutelako pentsamendua izan baitu betidanik. Beti geldirik, beti isilik kotxe barruan, beti besteei bidea emanaz. Eta orain semaforo gorri berri hari jaramonik ez egiteko beharra sumatzen hasi da. Ezkerrera begiratu, eskuinera begiratu. Aurrera. Konpositore Zaharren Miresleak semaforo gorria pasatu du. Eta ondo sentitu da. Eta bururatu zaio hogeita lau urte direla semaforo gorri bat pasatu gabe, laster ikusiko duen laguna ikusi gabe daraman urte kopuru berbera, eta egunik aproposena aukeratu duela semaforo gorria pasatzeko, ez baitu kotxe barruan geldirik egon nahi, ez baitu kotxe barruan isilik egon nahi pasatzeko baimena noiz emango zain. Eta ziztu bizian zuzendu da autopistarantz.

Konpositore Zaharren Mireslea kafetegira iritsi da. Kafe bat eskatu du eta bazterreko mahai batean eseri da. Poltsatik zigarro bat atera du eta piztu egin du. Eta bigarren zurrupadarekin batera kafetegiko atea ireki eta gizon bat sartu da. Hogeita lau urte igaro diren arren berehala ezagutu du, ez du zalantza izpirik izan. Eta keinu bat egin dio eskuaz.

Sartu berria Luis da. Luisek ere berehala ezagutu du. Ez daki zenbat urte igaro diren harekin azkenekoz egon zenez geroztik, baina bizitza erdia, gutxienez, izan delakoan dago. Irribarretsu hurbildu zaio eta masailetan bina musu eman dizkiote elkarri. Luisek egia esan dio, etorri aurretik beldurra ematen ziola oroitzapena eta errealitatea elkarren aurrean jartzeak, baina orain bere aurrean dagoelarik, beldurra poz ikaragarria bilakatu dela, iraganean bezain polita jarraitzen duelako. Konpositore Zaharren Miresleak konplimendua eskertu egin dio bai eta gezurrik ez esateko eskatu ere. Luisek ez dela gezurra arropostu dio eta beti esaten duela egia gaineratu du. Zerbitzari batek eskatutako kafea ekarri dio. Eta kafeak hartu eta euren bizitzen berri elkarri ematen dioten bitartean biak gustura sentitu dira. Baina bien artean Luis da gustuen dagoena, zeren Konpositore Zaharren Mireslearen bularrean puzten hasia baita egiaren

puxika, eta ohartu gabe beste zigarro bat piztu du eta geroxeago beste bat. Bat-batean burura etorri zaio, puxika horretan aire garbia baino ke beltza sartzen ari dela, hogeita lau urtetan metatutako kea dela eta sekulako gogoak dituela lehertzeko. Eta oroitu da Luisek ez zuela erretzen eta, ziurrenik, ke beltza ez zaiola atsegingo. Konpositore Zaharren Mireslea gaizki sentitu da. Lehertze ar dago eta ziur dago Luisek ez duela batere ondo hartuko urte haietan guztietan engainaturik bizi izana.

Hiru ordu, bi kafe eta hamaika azalpen geroago Luis mahaitik altxatu da eta kalera joan da agurrik esan gabe. Konpositore Zaharren Mireslea bertan geratu da. Beldurra ematen dio mahaitik altxatzea zeren galdurik sentitzen baita. Orain hogeita lau urte bezalaxe. Dena kontatu dio, baina lasaitu beharrean urduri dago. Egun haietan bezalaxe. Eta egun haietan bezalaxe orain ere kafetegiko bezero guztiek so egiten diotelako susmoa dauka. Eta leku guztietara begiratu eta gero, iruditu zaio denek entzun dutela Luisi kontatutako guztia eta badakitela dena. Eta den-dena baldin badakite jakingo dute haserre atera den gizon hura bere maitalea izan zela orain hogeitaka urte; jakingo dute, halaber, haurdun geratu zela eta ez ziola ezertxo ere esan maitaleari, izuak isilarazi zuela biak ezkondata zeudelako, desagertu nahi izan zuela bai eta desagertu ere. Eta jakingo dute ez duela txintik ere esan hogeita lau urte hauetan eta kontatzeko behar izugarria zuela. Bezero guztiak hurbilegi daudela deritzo. Dena entzun dute eta zurrumuruak hasi dira. Ihes egin behar duelako ideia sumatu du, jendearen hurbiltasuna jasanezina egiten baitaio. Ihes egin behar du, handik atera, edonora joan, bost axola norabidea. Edozer, jendearen esamesak aditu baino lehen. Kafetegitik atera da eta ihes egin du. Aurrerantz. Orain hogeita lau urte bezalaxe.

Eta Konpositore Zaharren Miresleak aurrerantz ihes egiten duen bitartean Luisek etxerako bidea hartu du. Etxera iritsi denean nahikoa berandu da. Bere emaztea eta seme-alabak ohean daude. Hobe, zeren ez baitauka hitz egiteko gogorik. Isilean oheratu da. Loak garaiz har dezan desiratzen hasi da, ondo aski baitaki zer den goiz osoa gutunak banatzen ematea behar bezala lorik egin gabe. Ohiko jarrera hartu du ohean, gero jiratu egin da, gero ahozpe, ahoz gora. Nahi eta ezin. Bere pentsamenduak ozenegi mintzatzen zaizkio. Eta pentsamendu horiek errepikatzen diote behin eta berriro lagun bati ez zaiola horrelako zitalkeriarik egiten, etsairik maltzurrenari ere ezin zaiola horrelakorik esan, jendeari ez zaiola esaten aita izan dela hogeita lau urte igaro eta gero, ez dagoela eskubiderik. Egunsentia laster azalduko da eta lo egin behar duela mila bider errepikatu dio bere buruari. Baina denborak aurrera egiten du, azkarregi. Iratzargailuak jo du. Altxatu eta komunera joan da. Dutxan dagoela buruan pentsamendu askotxo ez ezik zalantza franko ere baditu. Ezagutu nahi al du? Nolako izango ote da? Zerbait esango al dio? Eta emazteari kontatu behar al dio? Eta seme-alabei?, zer pentsatuko du emazteak?... zalantzak, galderak, pentsamendu haiek guztiek aurki itoko dutelakoan dago. Dutxatik atera, lehortu eta bizarra egiten hasi da. Bizkorrago ibiltzen ez bada berandu iritsiko dela lanera gogoratu egin dio bere buruari. Bere garaian ez zion tutik ere kontatu emazteari, zer dela eta kontatu beharko lioke orain?. Axolagabeko abentura hura bizidun bihurtu delako. Aldagaiak beste batzuk direlako. Txerrikeria galanta delako. Emazteari dena kontatu ohi diolako. Eta bere dudamudak argituko dituzten erantzunak bilatzen saiatzen den bitartean orban gorri txiki bat ikusi du ispiluan, masailean ebaki bat egin duela iragartzen diona. Eta maldizioka hasi da. Eta bururatu zaio errealitatea baino oroitzapena nahiago

zuela, oroitzapen samurra zela eta errealtatea gorriegia dela. Bere odola bezalakoxea.

Etxetik berandu atera denez, postetxera berandu iritsi da. Masailean ebaki bat darama eta buruan arazo gehiegi. Banaketa egiteari ekin dionean inoiz baino lan gehiago dagoela pentsatu du, gutuna hilda dagoela dioten horiek puta ideiarik ere ez dutela eta gaur nahikoa berandu bukatuko duela. Lehenengo ataria: zazpi eskutitz, hamabost faktura, bi aldizkari. Bigarren ataria: hiru eskutitz, lau faktura eta pakete bat. Hirugarren ataria: lau eskutitz, gutun ziurtatu bat, sina ezazu gurutzea dagoen tokian, Indiatik bidalitako postal bat eta lau faktura. Eta postontziak betetzen doan heinean bere burua husten doa. Bere alaba berri hori ez duela ezagutu nahi erabaki du. Ez du inoiz ezagutuko. Halaber, aurrerantzean ezer gertatu ez balitz bezala jokatuko duela erabaki du, emakume hori ez dela sekula existitu eta nekez oheratuko zela existitu ez den emakume batekin, eta amesgaizto bat besterik ez dela izan. Bai, emazteak begi-zuloez galdetuz gero, horixe esango dio, amesgaizto luze bat izan duela. Eta postontziak betetzen jarraitu du eta ondorio batera iritsi denean, egiarako ere berandu samarra delako ondorioa atera duen une berean, kartazal handi bat utzi du postontzi batean. Nire postontzian.

Kartazal handi bat aurkitu dut nire postontzian, telefonikako faktura eta supermerkatuko propagandarekin batera. Kartazala igorlearen izenik gabe dator eta horrek nire jakin-mina piztu du. Etxera iritsi naiz. Giltzak gorde, propaganda zakarretara bota (prezioekin izutu eta gero), telefonikako faktura gorde (ordaindu beharrekoarekin izutu eta gero), etxeko arropa jantzi eta kafe bat prestatu dut. Hau guztia egin ondoren egongelako besaulkian eseri naiz, kafea eskura dudalarik eta igorlerik gabeko kartazal misterioitsu hura zabaldu dut. Eta zigarro bat piztu dut.

Kartazalaren barruan ordenagailuz idatzitako ipuin bat dator. Letra tipoa ezaguna dut, Bookman old style. Ezaguna dut nik gehienetan erabiltzen dudana delako. Bitxia iruditu zait kointzidentzia. Ipuina irakurtzen hasi naiz. Eta ipuina hasi da idazle baten istorioa kontatuz. Idazle honek bere emaztea baino maiteago du literatura eta horregatik emazteak adarrak jartzen dizkio margolari gazte batekin. Hala ere, liburuzaina eta margolariaren artekoa engainuz beteriko harremana baizik ez da, maitasunik gabeko sexua, oso ondo legokeena baldin eta biek joko berean ari direla jakingo balute. Baina ez da liburuzaina haren maitale bakarra, zeren diru arazorik ez duen itzultzaile batekin ere oheratzen baita, eta honi ere ez dio egia esan, ez dio esan bere dirua besterik ez duela maite. Haatik, itzultzaileak hori jakingo balu agian berak ere egia kontatuko lioke, ez duela inoiz maite izan eta denbora pasa soila baino ez dela. Eta istorioak aurrera egin ahala konturatzen hasi naiz ipuin honetan pertsonai asko dagoela eta denek elkarri egiten diotela iruzur, denak direla engainatuak eta denek engainatzen dutela, eta denek nik beste erretzen dutela.

Ipuina irakurtzen jarraitu dut eta engainuak atzera ere agertu dira. Itzultzaileak bere ama engainatzen du minik har ez dezan, ez baitio kontatzen badakiela bere aitak adarrak jartzen dizkiola. Amak, berriz, itzultzailea engainatzen du azalpenik eman behar ez izateko, ez baitio esaten bere benetako aita ez dela berarekin ezkondata dagoen gizona baizik eta orain dela hogeita lau urte izan zuen maitale bat. Maitale hura ere hogeita lau urtez egon da tutik ere jakin gabe eta alaba berri bat daukala jakitean habea erori

zaio gainera. Jarraian jakin dut gizagaixoa postaria dela eta erabaki duela emazteak ez duela horren berri inoiz izango eta gero...

Gero urduri jarri naiz. Beste zigarro bat piztu dut eta ene baitan pentsatu dut irakurri dudana ezin izan dudala irakurri. Baina berriro irakurri dut testua eta horixe dago jarrita. Ezin dut ulertu. Ezin uler dezaket nola izan naitekeen ni pertsonaietariko bat. Ulertuko nuke baldin eta ni ipuin horren idazlea banintz, baina ni ez naiz ipuin horren idazlea. Ni istorio horrekiko zerbait izatekotan, egilearen teknika bera erabilita, "Engainuen Ipuinaren Irakurlea" izango nintzateke. Hala ere, izen hori onartuta ere, oraindik ez dakit zer egiten dudan nik ipuinaren barnean. Atzera egin, beste kafe bat berotu, hasierara itzuli eta kafea prest dagoenean berriro irakurri dut ipuin osoa. Zigarroak bata bestearen atzetik erre ditut. Bigarren irakurketa bukatu dudanean, hasierako harridurak arrazoizko pentsaerari bide eman dionean, kezka bat izan da nagusiki buruan geratu zaidana; galdera bat, alegia, zergatik ni?. Zergatik ez, esate baterako, bigarren pisuan bizi den kazetaria? Edota zergatik ez, adibidez, zu?. Bai, bai, zu zeu, une honetan zure ohean etzanda orri hauek irakurtzen ari zaren hori. Zu zeu izan zintezke ipuinaren hartzailea. Edota zu, lanera edo ikastera garraio publiko batean zoazen bitartean irakurtzea gustuko duzun hori. Edota zu akaso, eguerdiko kafea hartzen duzun bitartean irakurtzeko ohitura duzun hori. Edota, zergatik ez?, zu zeu, idazle ospetsua eta lehiaketa ospetsu batean epaile zaren hori. Denak izan zintezkete ipuin horren hartzaileak. Aitzitik neu izan naiz. Eta otu egin zait agian ez dagoela inolako arrazoirik ni izateko, ipuinaren egilearen tresna soil bat izan nintekeela, idazleak erabili nauela engainuei buruzko engainu erraldoi bat sortzeko, eta beharbada, ni engainaturik izan naizen bezala zuek ere, ene lagun maiteak, engainatuak izan zaretela.

Ondorio batera iritsi banaiz ere, ez nago batere lasai. Zerbaitek ihes egin didalako susmoa ezin dut niregandik urrundtu. Zerbait falta zait baina ez dakit zer den. Berriro hasi naiz pentsatzen. Ondorio batera iritsi naiz, ados. Badakit engainatua izan naizela, ados. Baina puzzle honetan piezaren batek ezkutaturik egon behar duelako ideia datorkit burura, behin eta berriro. Engainua ezin daiteke adarra jo digutela jakitea izan. Azken batean, horrek "zer?" galderari erantzungo lioke baina ez "nola?" galderari. Zertan datza, bada, engainua?.

Sukaldera joan naiz. Arratsalde osoa eman dut buruari eragiten eta gose naiz. Ogitarteko bat prestatu, basokada bete ur mahaira eramanez, eskuzapia atera eta ipuina irakurtzen hasi naiz berriro. Eta ideia bat bururatu zait sekulako beldurra sortarazi didana. Izan ere, ni izan naitekeela lehenengo pertsonaia bururatu zait, Burugabeko Istorioen Idazlea alegia. Horrela ulertuko litzateke zergatik agertzen naizen ni istorio honetan. Horrek esan nahiko luke ezinezkoa deritzodan zerbait, hots, nik neure buruari egin diodala engainua. Ideia hau baztertu dut. Lehen esan dudanez bezala ni Engainuen Ipuinaren Irakurlea nintzateke. Eta gainera ni ez naiz idazle eta ez nago ezkondua. Beraz, hausnarketa hau egin ostean aurrera egin dut ipuin bitxi honen orrialdeetatik, ogitartekoa jaten dudanean bitartean. Eta lehen sentitutako susmo berberak izaten hasi naiz. Eta pentsatu dut hau dela istorio bat non pertsonai guztiek asko erretzeaz gain denek engainatzen dioten elkarri. Eta gero bururatu zait... atzera egin dut. Une batez zerbait aurkitu dudala iruditu zait. Puzzlearen pieza izango ote?. Ikuspuntuan egon daiteke gakoa. Baina ez nago ziur eta horregatik ipuina berriro irakurtzeari ekin diot, azkeneko aldia izango delako itxaropenaz. Zigarro bat piztu dut. Lehenengo orria, bigarrena, hirugarrena, laugarrena,

ulertzen hasia naizelakoan nago, bosgarrena, seigarrena, zazpigarrena eta zortzigarrenarekin batera arrazoia dudala esan diot neure buruari. Eta jarraitu dut irakurketa eta pentsatu dut ez dakidala zergatik bururatu zaidan ipuina istorio oso bat zela, ez dakidala zer dela eta bururatu zaidan pertsonaia guztiak erlazonaturik daudela, hasieratik egon naizela oker bost istorio ezberdin zirela pentsatu beharrean istorio bakarra zela pentsatu dudalako. Eta ene buruari aitortu behar izan diot ez dudala inon ere irakurri Koadernatutako Kulturaren Antolatzaileak Rosa izena zuenik ezta Oroitzapen Bitxien Margolariari Alberto esaten ziotenik ere. Maria berdin Hizkuntz Arrotzen Menperatzailea. Cristina berdin Konpositore Zaharren Mireslea . Non irakurri dut nik horrelakorik?. Ez, ez dut inon irakurri. Lotura horiek guztiak nire buruan baino ez zeuden eta, ene lagunok, zergatik irakurri idatzita ez dagoena?. Eta gauzak horrela, Burugabeko Istorioen Idazleak idatzi eta niri iritsi zaidan ipuina ez da ipuin bera, eta, onartu beharra dut egileak ni ere engainatu nauela eta ipuin horretan ez naizela pertsonaietariko bat. Engainaturik ipuin osoan zehar. Baina arrazoia nuen egilearen tresna bat baizik ez naizela esan dudanean, eta ez da meritu makala. Azken batean, ni izan naiz egia kontatu duen bakarra.

Azken zigarroa itzali dut eta nekaturik ohera joan naiz. Arropa erantzi, izara artean sartu eta lasai sentitu naiz. Lasai eta pozik. Ohean ene lagun ona den Koldorekin oroitu naiz eta berak esandakoa etorri zait gogora. Egun hartan esan zuen —hamasei hitz soilik erabiltzen zituen antzerki ulergaitz hura ikusi genuen egunaz ari naiz— benetan atsegin zaiguna ez dela antzerkia edota istorio bera, baizik eta ikusi edo irakurri dugun hori, dena delakoa izanik ere, ulertzeko gai izan garela jakitea. Jakite hura da zinez pozten gaituena nahiz eta gehienetan kontrakoa iruditu. Eta arrazoia duelakoan nago ezen bizitza honetan ezer gutxi baita ematen duena.